

BALIO PROPOSAMENA

MOBIMOTO

Gure enpresak Donostian funtzionatuko du, eta Donostian normalean nahiko atasko egoten da kaleetan, eta motoek atasko horiek saihesten dituzte, hortaz motoak izango diren taxiek atasko guzti hori saihestuko dute, eta bezeroak denbora eta dirua aurreztuko dute. Beste taxi enpresengandik bereizten gaitu, motorrek kotxeak baino askoz gutxiago kontsumitzen dutela, azkarrago iristen direla lekuetara, eta ondorioz merkeagoa izango dela zerbitzua eta azkenik gure zerbitzua gertukoa izango da, gure gidariak bezeroekin gertukoak izateaz ziurtatuko garelako. Gainera, berritasuna ekarriko du hirian, eta jende asko erakarriko du.